



BEGO alabazan

HELDUENTZAKO AHO-NARRAZIOA

IPUIN BEROTIKOAK



BEGO Alabazan-ek

AURKEZTEN DU

IPUIN BEROTIKOAK

Helduentzako aho-narrazio saioa

Gaur egun ipuin-saioak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira entzule-ikusle goaren artean, bizi garen mundu birtual honetan eskertzen baitira harreman zuzena bideratu eta bultzatzen duten ikuskizunak, aurrez aurre gozatzekoak.

"Helduentzako Ipuinak" ez dira jadanik ulertezina den zerbait eta kalitateko antzezki izatera pasa dira, baita antzokietan ere bideratzen direnak, duten abantailen arteko bat bere formatu txikia delarik.

Saio honen gaia "amu" bereziki interesgarria da normalean helduentzako aho-narrazio saioak programatzen hasten diren tokietarako.

Ordu betez **Bego Alabazan** narratzaileak umorez eta hurbiltasunez elkarbanatuko ditu emakumezkoon ikuspuntutik kontatutako istorioak, agian normalean aipatzen ausartzen ez garen gaiak gurera ekartzen.

Irudimen-bidaia berezi eta bero honetan atearen bestaldera abiatuko gara. Ezkututzen ohi zaiguna ikusi ahalko dugu, sarrailatik begiratzean bezalaxe, hitzen, begiraden, keinuen eta irudimenaren poderioz.

Zatozte begiratzerara; eta gero, utzi zeuen gorputzak imajinarioaren bideari jarraitzen.



ALDIZKARI-ARTIKULUAK

- ✱ "Erotismoaren gaia lantzea ez dateke erraza batzuetan, ostera Gomezek, esperientziatik, dienez ekitaldietara bertaratzen den jendea "jakin -min handiz hurbiltzen da, sarritan eskertu ere egiten dute gaiaz misterio barik berba egitea...".
Irantzu Sagarminaga-UK aldizkaria- 206 znb.
- ✱ "Irudimena da sexu-organurik indartsu eta baliotsuena, eta sarritan gutxien lantzen duguna."
I. Esteban -ANBOTO aldizkaria, 2011ko apirilaren 1ean
- ✱ "Esta sesión está pensada para estimular la imaginación, donde se juega con el erotismo y muy cerca de la feminidad".
La Opinión de Zamora (jueves, 1 de agosto de 2013).
- ✱ Hona hemen *Zamorako La Ser* irrartian narratzaileoi eta antolatzaileari egin ziguten elkarrizketa; bertan, erotismoaz hitz egiteaz gain, aipatzen da ere saio honen balorapena.



SAIO HONEN IBILBIDEA

2008tik hona urtero hainbatetan bideratzen dut saio hau euskaraz Euskal Herrian zehar, bere errepertorioan helduentzako saioen arteko eskatuena da eta. Gaztelera aurkeztu zuen arrakasta handiz 2012ko "Munt de Mots" ipuinen 3.jaialdian, Bartzelonako Harlem aretoan. Hurrengo urtean, Guadalajarako 22. Ipuin Maratoian ezagutzera eman nuen "Narradores Inauditos" atalean. Honi esker, uda berean Zamorako "II Festival de Cuentos Eróticos" delakoan kontatzera joateko deitu ninduten bertan ere ikuslegoaren harrera ezin hobea izan zuelarik.

ALDIZKARI - ARTIKULUAK

- **Sex d´Luxe Bilbao 2012 (castellano)**
<http://vimeo.com/55724363>
- **Harlem Barcelona 2012 (castellano)**
<http://youtu.be/NuS2aTQjdJw>
- **Bilbo Zaharra euskaltegia 2008 (euskera)**
<http://youtu.be/bQZnI5rP3gs>

FITXA TEKNIKOA

- ✓ NARRATZAILEA **Bego Alabazan**
- ✓ ZUZENDARITZA ARTÍSTIKOA **Magda Labarga**
- ✓ HIZKUNTZA **euskeraz zein gazteleraz**
- ✓ IRAUPENA **ordu betea**
- ✓ MUNTAIA /DESMUNTAIA ez du
- ✓ TOKIA - **eszenatoki txikia**
 - tabernetako **taburetea**
 - **mahai txiki bat**
- ✓ SOINUA **soinu-ekipoa** eta honen ardura hartzen duen teknikaria entzuleak sartu bitartean eta saioan zehar musika jartzeko.
Tokiaren tamaina eta baldintzen arabera, mikrofonorako konektorea ere.
- ✓ ARGIAK **argiak aldatu/iluntzeko** aukera isorio baten eszena batean giro desberdina sortzeko.





NARRATZAILEAREN AURKEZPENA

Bego Alabazanek (Begoña Gómez Abrisketa), 1996tik hona Ahozko Kontalaritzan dihardu txiki eta nagusiei ipuinak kontatzen, euskaraz eta gazteleraz ere. Berarentzat ipuinak kontatzearen oinarrizko helburua dibertitzea da; eszenatokira ateratzen denean entzuleekin jolasteko gogoz egiten du, txikiak zein handiak direla. Beti hitzez, begiradaz eta keinuez lagunduta, batzuetan arnasa eman dioten liburuak eramaten ditu edota berak egiten dituen irudi, txotxongilo eta eskulanak ere.

Urtero 80 bat antzezkizun gauzatzen ditu batez ere Euskal Herriko liburutegi, Kultur Etxe, antzokietan... eta baita bere baitan sartu diren istorioak entzuteko prest dauden edozein tokitan.

Gaur egun **Alabazan Aho-narrazioa Kooperatibaren** erdia da Pedro Ruizekin batera.

2006tik hona Barakaldoko Udalarekin batera aurrera ateratzen dute **hitzBATU** egitaraua, Barakaldo eta Gurutzetako eskoletako Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutilekin ipuinak sortzen.

Honez gain, 2012tik gaur egun arte Bilboko Udalarekin batera **Istoriobizikiak/Cuentos Encadenados** izeneko ahozko programari buruzko hamabostaldia programatzen dute, hiribildu honen 2. barrutian.

Galtzagorri Elkartearen parte da 2011tik hona.

AEDAko (Asociación de Profesionales de la Narración Oral en España) kidea da ere 2012tik aurrera.

HARREMANETAN JARTZEKO

Bego Alabazan Tlf. 637302007 bego@alabazan.net www.alabazan.net



www.alabazan.net